



2001EKO IRAILAREN 11KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko irailaren hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Antonio Dopazo Martin.

Julio Ibañez Urteaga eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, Julio Ibañez Urteaga zinegotziak aurkeztu-tako idatziaren berri ematen du. Idatzi horretan, Julio Ibañez Urteagak, osasun arazoak direla medio, bere zinegotzi kargua utzi egiten duela adierazten du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

I.- OROBIONE BIRRERAIKITZE LANEN 5., 6. ETA 7. ZERTIFIKAZIOAK.-

Alkateak esaten du Eguneko Gai Zerrendan 5., 6. eta 7. zertifikazioak azaltzen baldin badira ere, atzo bertan eman ziotela bere oniritzia udal teknikariek 8. zertifikazioari eta beste hilabete bat ez atzeratzeko hemen sartzea proposatzen duela ondo iruditzen baldin bada behintzat.

Hau honela eta Obra Zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektuen eskutik Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako Oro-bione Birrerakitze lanen 5., 6., 7. eta 8. zertifikazioak, 5.043.583,- pta. (30.312,54 €), 11.231.831,- pta. (67.504,66 €), 9.296.255,- pta. (55.871,62 €) eta 11.261.304,- pta. (67.681,80 €) takoak. Zertifikazio hauen aurrean udal teknikariek beren txostena egin dute proiektuarekiko egon diren desbideraketak azaldu eta hauen zergatia azaldu ondoren zertifi-kazioak ontzat emanez.

Agirre zinegotziak (EH) esaten du beraiek zertifikazio hauek onartzearen aurka dau-dela eta hau bi arrazoiengatik. Alde batetik 8. zertifikazioa eguneko gai zerrendan ez egoteaz gain lehen ere inoiz edo behin esan izan duten bezala eguneko gai zerrendarekin batera do-kumentazioa bidali behar litzakela. Bestetik proiektu akatsak direla eta proiektutik dauden desbideraketen ondoriozko gaitzespenak proiektuaren egileak hartu beharko litzakela bere gain. Gaineratzen du ez dela lehenengo aldia eta askotan gertatzen ari dela eta bi arrazoi hauengatik aurka bozkatuko dutela.

Alkateak erantzuten dio esanez ez dakiela eguneko gai zerrendarekin bidaltzen den informazioa asko ala gutxi den baina dakiena dela informazioa Udaletxean egoten dela nahi

...///...

...///...

duenarentzat eta interesa duenak eskatu besterik ez duela. Proiektu akatsei buruz esaten du aipatu diren desbideraketetatik proiektu akats moduan kalifikatu daiteken bakarra 28 zm.ko orma 25 zm.takoa presupuestatu izatearena izango litzatekela eta gainontzeko guztiak material aldaketak direla, Udaletik eskatutakoak.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du berak ere, ahal bada behintzat, eguneko gai zerrendarekin batera diktamenak edo dokumentu zurigarriak, kasu honetan desbideraketak zurriz dituztenak bidaltzea eskatuko lukeela, gainera honela transparentzi eza argudiatzea ekiditzeko. Gaineratzen du ez duela aurka botatuko baina esan duena iradokizun moduan hartua izan dadin nahiko lukeela.

Alkateak erantzuten dio lehen esandakoan berresten dela dokumentazioa Udaletxean egoten dela ikusi nahi duen edonorentzat eta ez dagoela ezer ezkutatzeko gero argudio hori erabilia izan ez dadin ezezkoa emateko.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du beraiek ez dutela esan inor ezer ezkututzen ari denik baina ez dutela uste zinegotziak Udaletxea etortzen ibili gabe dokumentazioa etxean jasotzea ez zaiola inolako pribilegioa denik iruditzen, kasu honetan zertifikazioak zenbatekoak diren, zein desbideraketa duten eta zergatik.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez informazio hori hirigintza batzordean emandakoa dela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, EA, PSE-EE) eta aurkako 3 botuz (EH) zertifikazio hauek onartzea erabakitzen du.

II.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGAREN TIPOA.-

Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauak, bere 6. artikuluan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua aldatzen du eta artikulua honen laugarren apartaduan honela dio: "2002. urtetik aurrerako ondorioetarako, 14. artikulua aldatu da. Hona hemen idazkera berria:

«14. artikulua.

1. Zerga honen kuota, oinarri ezargarriari karga tasa aplikatzen emaitza izango da.
2. Karga tasa 1.000ko 0,4koa izango da ondasun hiritarrak direnean eta 100eko 0,3koa, aldir, ondasun landatarrak direnean.
3. Aurreko apartaduan xedatutakoa xedatuta ere, udalek hartan adierazi diren karga tasak gehitu ahal izango dituzte, ondasun hiritarren 1.000ko 4ko mugapean eta ondasun landatarretan 100eko 1,1eko mugapean.»

Bestalde Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituen uztailaren 6ko 24/2001 Foru Arauaren 11. artikulua bere biga-

...///...



...///...

rrren apartaduan, zera dio: "Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14. artikuluko 3. apartatuari beste paragrafo bat gehitzen zaio, eta hau da bere testua:

«Hiri ondasunetarako ezarrita dagoen muga horren barruan, udalek finka dezaketenean karga tasa gehitua bi motatakoa izango da: bata zoru industrial edo tertziarioan kokatuta dauden hiri ondasunetarako, dagozkien balorazio ponentzien arabera, eta bestea gainerako hiri ondasunetarako».

Azkenik aurrean aipatutako 24/2001 Foru Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarriak zera dio: "otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikorako zenbait zerga neurri onartzeak, aldaketak jaso ditu hirugarren xedapen iragankorrean, eta honela geratu da idatzita: «2001. urtean onartuko diren balorazio ponentzietatik ateratzen diren balio katastralak aplikatzeko, eta bakar-bakarrik urte horretarako ondorioekin, Gipuzkoako udalek 2001eko irailaren 15a baino lehen hartuko dituzte 2002. urtean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aplikatuko diren karga tasak finkatzeko behin-behineko erabakiak»".

Guzti hau honela eta hiri izaerako ondasunei dagokionean, helburutzat orain arteko dirubilketa, urteko KPIa aplikatu eta, lortzera joko duen karga tasa jartzea dela kontutan izanda, honako karga tasak ezartzea proposatzen da:

- industri guneetan dauden ondasunentzat ‰3,1
- gainontzeko ondasunentzat ‰1,49

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) Udalak karga tasarik onartuko ez balu zer gertatuko litzakeen galdetzen dio Idazkariari.

Idazkariak erantzuten dio Udalak karga tasarik onartuko ez balu Foru Arauan ezarritako minimoa ezarriko litzakela automatikoki, hau da 1.000ko 0,4ko karga tasa.

Irastortza zinegotziak (EH) industri guneetan dauden etxebizitzetako zein karga tasa aplikatuko zaien galdetzen du.

Industri guneetan dauden etxebizitzetako industri guneetarako ezartzen den karga tasa aplikatuko zaiela erantzuten zaio.

Irastortza zinegotziak esaten du industri guneetan dauden etxebizitzetako ere gainontzeko etxebizitzetako aplikatuko zaien karga tasa aplikatu beharko litzakela.

Estensoro zinegotziak esaten du kontsulta egin daitekela Udaletik eta hori horrela izan dadin gestioak egiten saiatu.

Irastortza zinegotziak esaten du gainontzean ados daudela KPIa aplikatzearena eta industri guneak eta gainontzekoa bereiztearenarekin eta beraz proposamena onartu egingo dutela, baina aipatu duten kezka hori azalduz.

Dopazo zinegotziak esaten du Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga tasaren

...///...

...///...

aldaketa, ordenantza fiskal baten aldaketa izanik, gainontzeko ordenantza fiskalen azterketaren barnean egin behar litzakela, eta hau honela alderdi bezala orain arte eraman duten jarraituz ez dutela porposamena onartuko eta besterik gabe abstenitu egingo dela.

Alkateak erantzuten dio esanez ez garela ari ordenantza fiskal soil baten aldaketaz hizketan baizik eta zerbait gehiagotaz eta proposamena ez onartzeak zer suposatuko lukeen ere denok dakigula, hau da, 57 milioi biltzetik 14 milioi biltzera eta gerora ere ondorio larriak izan ditzazkeen gaia dela. Gaineratzen du alderdi sozializtak berak ere esan duela aspalditik udalek eskatzen ari ziren gauza bat dela baina bestalde udalei kanpotik eginda eman zaien zerbait dela.

Dopazo zinegotziak erantzuten dio egia dela kezka bat egon dela katastro balioen aldaketaren ondorioz zerga zama handiago bat eraman ez zezan berekin eta udalek ezarri behar dituzten karga tasen ondorioz horrek KPIa gehi %10a baino igoera handiagoak egon ez zitezten aipatu izan dela eta bera ados dagoela politika horrekin baina beste zerbait dela karga tasa zehatz bat Lazkao bezalako udal zehatz batean erabakitzerakoan eta udal finantziario gaiaren aurrean hartuta duten jarrera politiko batean oinarrituta proposamen hori ez onartzearen jarrera hartzea, eta berak ez duela horretan kontraesanik ikusten.

Guzti honen ondoren, bozketak jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- Hiri izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkien ondasunentzat honako karga tasa hauek onartzea:

- industri guneeetan dauden ondasunentzat %_{oo}3,1
- gainontzeko ondasunentzat %_{oo}1,49

2.- Aurreko erabakia 30 lanegunetako denboraldian jendaurreko erakustaldian jartzea.

3.- Hartutako erabakia behin betikoa bihurtuko da, akordio berri baten beharrik gabe, jendaurreko erakustaldian inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada.

III.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]